



Atzo eguerdian ateratako argazkian ederki ikusi daiteke autoen gainean zegoen elur geruzaren tamaina.

Txuriz estali da herria

Asteazkenean eguerdi aldean hasi zen, atzo berriz, etengabe ihardun zen egun osoan zehar

Euskalmetek iragarri bezala, iritsi da elurra. Asteazkenean eguerdi aldean ikusi genituen lehenengo elur malutak eta autoak, dendetako toldoak eta lora-tegiak txuriz estaltzeko adina egin zuen. Atzo, aldiz, ia etengabe ihardun zen egun osoan eta arratsalderako zentrimetrotako geruza egina zegoen, haur eta gazteentzat dibertimendu ederra. •

GIZARTEA ■ 3

Udaletxea berritzeko eta handitzeko proiektua onartu du udalbatzarrak

KULTURA ■ 3

Bi kontzertu izango dira gaur iluntzean herrian, Morau Jalgin eta Underneed kulturetxean

KIROLA ■ 6

Berriro ere herriko judokek emaitza onak lortu dituzte azken lehiaketetan

Danok Kideren XVI. Jaiotza lehiaketak baditu sarituak

Urtero legez, Errege egunean, Danok Kide Gurasoen elkarteak jaiotzen lehiaketako sari bana-keta egin zuen bere egoitzan.

Endika Amilibia elkarteko kideak aurtengo maila eta partehartzaileen imajinazioa goraiatu ostean, Julio Valiente elkarteko presidentearen laguntzaz maila desberdineta-sariak banatu zituen.

6 eta 9 urte arteko haurren mailan Javier eta Pablo Herreiros Elvira eraman zuten sari nagusia eta J. Manuel Monjeren ikasleek, berriz, bigarrena; 10 eta 13 urte arteko gaztetxo-en mailan neska talde batek, Aitziber Rubio, Igone Gonza-

lez, Nahia Ruiz, Irune Casado eta Julene Illarramendik eskuratu zuten, bigarren postuan Oscar Garrido Diez geratu zen; 14 eta 17 urte artekoen mailan, Yanelle Sidok Pohou eta Maider Galardiren eskuetara joan zen lehenengo saria eta Mario Garrido Diezentzat bigarrena.

Azkenik helduen mailako sari nagusia esleitu gabe geratu zen. Danok Kideko presidentek azaldu zuenaren arabera, epai mahai kideek beste urteetan baino baremo altuagoa erabili dute. Maila honetako bigarren saria, azken bi urteetako irabazlearentzat izan da, Arantza Diez Fernandezentzat. •





Material elektrikoa Argiak
Etxetresna elektrikoak
TB/Hi-Fi
Instalazio elektrikoak

ELEKTRIZITATEA
ARREGUI

Kale Nagusia 39 • Tel.: 943 361080 • Tel./Faxa: 943 372521 • LASARTE-ORIA

Zorionak Txurdi !!!



EUSKAL PRESOAK
EUSKAL HERRIRA

Zorion-agurrak



Oihane

Zorionak pottok! Marrubizko 8 musu, familiaren partetik. Ondo pasa printzesa



Klementxo

Zorionak zure bostgarreren urtebetzean. Familia guztiaren partetik.



Johana

Zorionak bonboitxo! 7 musu marrubizkoak Saioa, aita, ama eta familiaren partetik.



Maria Jesus

Zorionak amoi, familiaren partetik eta muxu pottolo bat Unaxen partetik.



Espe eta Reyes

Zorionak Espe eta Reyes 41 urte elkarrekin egoteagatik eta Reyes zorionak 71 urte betetzeagatik... Munduko guraso onenak zarete. Zuen iloba eta seme-alaben partetik.




Asier

Jadanik 9 urte, "artista". Zorionak! Eta bederatziki muxu goxo-goxo. Maite eta Txema



Aitzol

Zorionak hi!



Juani

Zorionak amona, ondo pasa zure urtebetzean, asko maite zaitugu. Bi muxu haundiak. Urko eta Odei

Guardiak

Ostrala, 9

De Miguel, Kale Nagusia 32
Tel.: 943 371151
Larunbata, 10
Acha-Orbea, Hipodromo et. 6
Tel.: 943 363549
Igandoa, 11
Acha-Orbea, Hipodromo et. 6
Tel.: 943 363549
Astelehena, 12
Rodriguez, K. Nagusia 42 atzea
Tel.: 943 361774
Asteartea, 13
Gil, Kale Nagusia 24
Tel.: 943 361529
Asteazkena, 14
Acha-Orbea, Hipodromo et. 6
Tel.: 943 363549
Osteguna, 15
Urbistondo, San Frantzisko 1,
Tel.: 943 366567

Telefonoak

Osasuna / Larrialdiak

Osasun Zentroa ... 943 007960
DYA 943 370000
Gurutze Gorria ... 943 363953
Udaltzainak 943 362442
Ertzaintza 943 288888
SOS Deiak 112

Udala

Erregistroa 943 376055
Euskarako Zerbitzua 943 376184
Kiroldegia 943376182
Kulturetxea 943376181
Bakezko epaitegia ... 943371629
Zerbitzu Sozialak ... 943376179
Zentro Zibikoa ... 943363958
KIUB 943361605
Udal euskaltegia ... 943361621
Obrak eta zerbitzuak 943 376180

Jaiotzak

Maialen Hernández Zubizarreta, abenduaren 25ean.
Nora Tejero Noé abenduaren 24ean.
Miguel Angel Rodriguez Cañón, abenduaren 21ean.
Aaron Marin Martín, abenduaren 18an.
Ariadne Diaz Espin, abenduaren 17an.
Sophie Rigo Pepe Nicola, abenduaren 10ean.

Heriotzak

Rufina Pérez Ayuso, urtarrilaren 3an, 92 urte zituela.
Daniel Adrian de Con, abenduaren 30ean, 60 urte zituela.
Jose Luis Aranburu Artola, abenduaren 26an, 64 urte zituela.
Ildefonso Garcia Cillero, abenduaren 25ean, 72 urte zituela.
M^o Dolores Pedrajas Jurado, abenduaren 24an, 80 urte zituela.
Gregoria Cameno Montoya, abenduaren 24an, 78 urte zituela.
Anastasio Iturri Ikutza, abenduaren 16an, 76 urte zituela.
Jose Sánchez Llanos, abenduaren 14ean, 83 urte zituela.

Azoka txikia

Salerosketak

• MONTY txirrinda urdina salzten dut, garbia eta kolperik gabea eta 5 eta 9 urte arteko haurrentzat aproposa dena. Salneurria 60 euro. Deitu 943 366 435 edo 627 358 898 telefono zenbakietara.

• Bigi Garbitasunak. Alfonbrak, etxeak, bulegoak, etab. garbitzeko prest gaude. Deitu inongo konpromezurik gabe. 638 944 604 - Irene- edo 695 708271 -Itsaso-.

Lan-eskariak

• Pertsona arduratsua eta klinika laguntzaile, geriatria eta psikologia esperientziadunak pertsona adinduak zainduko litzuzke. 680 983 527- Karlos.

Oharretarako:

943 366858 • Geltoki kalea 4
txintxarri@ttakun.com
www.txintxarri.info
www.txintxarri.iragarkilaburak.com



Gazte Informazioarako Bulegoa

Manuel Lekuona kulturetxea • Tel.: 943 376181

www.gipuzkoangazte.info

Errenteriako Udalerako Zuzenbidean lizentziadun lanpostu bat

Errenteriako Udalean Zuzenbidean lizentziadun lanpostu bat oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdia. Bete beharreko baldintzak honakoak: Zuzenbidean lizentziaduna izatea eta euskarako 4. hizkuntza-eskakizuna izatea. Izena emateko azken eguna urtarrilaren 23a da. Informazio gehiagorako jo Errenteriako udalera, Herriko plaza z/g; tel.: 943 449600; faxa: 943 449650; e-maila: info@errenteria.net; web orrialdea: https://ssl4.gipuzkoa.net/eusker/gao/2008/12/18/e0813950.htm eta http://www.errenteria.net.

Urnietako udal kiroldegiko taberna-jatetxearen ustapena esleitzeko deialdia

Urnietako udal kiroldegiko (Oztran bailara) taberna-jatetxea osorik kudeatzeko eta ustiatzeko deialdia. Esleipenaren iraupena: kontratu honek kirol instalazioak berri-tzen hasi bitarteko iraupena izango du; nolani ere, bi urteko gehieneko iraupena izango duela-rik. Aurkezteko azken eguna, urtarrilaren 20a. Informazio gehiago nahi izanez gero, jo Urnietako udalera: San Juan 5; tel.: 943 000800; web orria: https://ssl4.gipuzkoa.net/eusker/gao/2009/01/05/e0814398.htm.

Lanbide-praktikak egiteko beka

Eskabideak: Curriculuma Ekonomisten Euskal Elkargora bidali behar da, Arabako Sailera. Bete beharreko baldintzak: Ekonomi zientzietan edo Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan lizentziatua izatea; langabezia egotea; bizilekua Araban izatea; informatikan erabiltzaile-mailako ezagutza; hizkuntzen ezagutza. Eskaearak egiteko azken eguna urtarrilaren 13a da. Informazio gehiago nahi izanez gero, jo Ekonomisten elkargora Araban, San Bizente Paul 3, behe; tel.: 945 25 02 09; faxa: 945 280286; posta elektronikoa: alava @ekonomista.org eta web orria: http://www.ekonomista.org.

Arkitekto lanpostu bat Hernaniko Udalerako

Hernaniko Udalerako Arkitekto lanpostu bat betetzeko oposizio-lehiaketa. Bete beharreko baldintzak: arkitekto titulua izatea eta 4. hizkuntza-eskakizuna izatea. Izena emateko azken eguna: 20 egun natural BOEn argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Informazio gehiagorako jo Hernaniko Udalera, Gudarien plaza 1; tel.: 943 337000; faxa: 943 551141; e-maila: erregistro@hernani.net eta web orria: https://ssl4.gipuzkoa.net/eusker/gao/2008/12/22/e0813911.htm.

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Ttakun Kultur Elkartea, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: S5513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.300 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com. Txintxarriek ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Udaletxea berritzeko eta handitzeko proiektua onartu du udalbatzarrak

■ PPK krisi ekonomikoaren aurrean Aurrekontuen Kontrolerako Batzorde Berezia eskatu du
■ Israelgo Estatuak Palestinako herriarekin egiten ari dena gaitzetsi zuen atzo Udalbatzarrak

Udaletxea berritzeko eta handitzeko gauzatze egitasmoa onartu zuen Udalbatzarrak, beste gauza batzuen artean, abenduaren 19an egindako ohiz kanpoko bilkuran. Atzo burututako bilkuran berriz, PPK krisi ekonomikoaren aurrean Aurrekontuen Kontrolerako Batzorde Berezi bat sortzea eskatu zuen, baina proposamena mahai gainean uztea eta hurrengo egunetan berriro aztertzea erabaki zuten Lasarte-Oriako zinegotziek.

PSE-EE, EB eta PP alderdien aldeko botoei esker, udaletxea berritze eta handitze lanak gauzatzeko egitasmoa aurrera doa. EA abstenitu egin zen, PNV eta LOHPko zinegotziek berriz, kontra bozkatu zuten. Proiektu honek 11 miloi eurotako aurrekontua du, Udalak lanak aurrera hasteko asmoa du eta hiru urte iraungo dutela aurreikusitu du.

Eguno udaletxean zaharberritze lanak egingo dituzte eta bertan udaltzainak, osoko bilkuren aretoa eta alderdi politikoen bulegoak utziko dituzte.

Eraikin berriak, berriz, bost solairu izango ditu eta egungo udaletxearen atzeko aldetik lotuta egongo da. Proiektu honek Okendo plazaren azpian 120 autoentzako aparkaleku bat eraikitzea aurreratu du.

Bilkura berdinean, Kotxeraren 1.001 etxebizitza eraikitzeko -hauetatik 355 babes ofizialekoak- Arau Subsidiarioaren aldaketa puntuala, kontratazio espediente eta lanak esleitzeko irizpideak onartu zituzten.

Gazako sarraskiaren aurka

Atzo goizeko bilkuran PSE eta EBak aurkeztutako mozioa onartu zen ia aho batez: denek eman zuten aldeko botoa PPKo zinegotziak izan ezik. Hau abstenitu egin zen. Ezker abertzaleko hiru zinegotziak ez zuten parte hartu batzarrean.

PSE eta EBren proposamena onartzearekin, Israelgo Estatuak Palestinako herriarekin eta zehazki Gazan burutzen ari den sarraskia gaitzetsi zuen Udalbatzak. Era berean, Nazioarteko Komunitateari exigitzen dio batetik, hondamen humanitario honekin bukatu dezala Israeliek eta bestetik dirua eta giza laguntza bidali ditzala. Espainiako Gobernuari, berriz, eskatzen dio Israelgo Estatuari armen salmenta eragozteko eta Palestinako herria laguntzeko beharrezkoak diren ekimen guztiak martxan jarri ditzala.

Honen harira, Ricardo Ortegak kontzientziak astindu eta esnatu behar direla esan zuen. "Ezin gara mutu geratu Israelgo Estatu terrorista burutzen ari denaren aurrean".



Herritarrek atzo ezin izan zuten Okendo Plazako petrilean ezta bankuetan eseri, elurtuta zeuden eta.

Bestetik, herritarrek gonbidatu zituen manifestaldietan parte hartzea eta Israelen ekoizten diren produktuei boikota egitera. 729 zenbakiarekin hasien dira Israelgo produktuen barra-kodeak.

Galde-eskeak

Herri Plataformako Ana Isabel Prietok galdera-eskeen aukera erabili zuen "herritarren kezak" azaltzeko. Alkateak erantzun egin dio. Herriko autobusa aurtengo aurrekontuetan onartua dago, beraz

martxan jartzeaz dagoela esan zuen alkateak. Anbulategi berriaren irekiera asko luzatzen ari dela eta ea noizko egongo den jakin nahi zuen Ana Isabel Prietok. Baina, Osakidetzaaren eskutian omen dago erabaki hori. Loidi-Barreneko babes ofizialeko etxebizitzetarako izena emateko irizpideak ez direla ezagutzen salatu zuen. Alkateak erantzun zuenez, herriko errolda zehazten ari dira, epea irekitzen denean kanpoak erroldatu ez daitezten.

Gabonetako udal batzar bereziak

Aitzol Iriondo atxilotu zutenetik Lasarte-Orian egin diren bi osoko bilkurak bereziak izan dira. Kanpoko komunikabideetako telebista kamarak, argazkilariak eta kazetariaren presentzia handia izan da.

Hau dela eta, ezker abertzaleko hiru zinegotziek jendaurreko ekitaldi hauetan ez parte hartzea erabaki dute.

Kontzertuak

Ostiral musikala Lasarte-Orian

Eskaintza rockeroa da gaur nagusi herrian. Izan ere, bi kontzertuz gozatzeko aukera egongo da, bata *Underneed*, 20:00etan Manuel Lekuona kultur etxeko kafetegian eta bestea *Morau ta Agotak*, 22:30ean Jalgi kafe Antzokian.

Underneed

Azaroan eskaini beharreko kontzertua, abeslariaren gaixotasuna zela eta, bertan behera geratu ostean, gaur dugu Underneed taldearen doinu eta rocka entzuteko parada Kultur etxeko kafetegian. Kontzertua Xpression eta Udalaren hitzarenari esker antolatuta kokatzen da.



Ezkerreko argazkian, Underneed taldea. 20:00etan izango da Kultur Etxean. Eskubian, Morau ta Agotak, Jalgin izango dira 22:30etik aurrera



2005an sortutako taldeak urte horretan bertan, Donostiako Pop Rock lehiaketa irabazi zuen.

Pixkanaka estatu mailan eta atzerrian ezagutzera eman den taldea da eta honi esker, hurrengo hilabeteetan zehar estatu mailan, kontzertu bira

bat eskainiko du edari markabaten laguntzaz.

Morau eta Agotak

Ostean, Jalgi Kafe Antzokian izango da hitzordua. Bertan *Morau ta Agotak* taldeak rock&rollez betetako kontzertua eskainiko du.

Andoni Tolosa *Morau* bakarlarri gisa hasi zen kantari 90eko hamarkadan. Ordurako poesia liburu bat argitaratu zuen eta komikigintzan aritua zen Argia astekarian.

Hainbat musikari eta kolaboratzaileekin grabatu ostean, 2003. urtean *Agotak*

taldearekin hasi zen lanean *Morau*: Bernardo Goietxe (gitarrak eta Koruak), Jexux Agirresarobe (baxua) eta Igor Mendia (bateria).

2008an, Ander Barrenekxek hernaniarrak Igor Mendiaren lekua hartu zuen bateriari jole moduan. •

2008tik 2009ra bidean, denetarik izan zen gabon egunetan herriko kaleetan



Simo Tomas agnanean murgildu gien Gabor Eguneako jai giroan. Herriar ugri hurbildu ziren talo, existorra eta gazteak harzera.



Herri erdi eta auzoetan hainbat koadrila atena ziren gabon kamak eskaintzera. Inudian Zabalea auzokoak.



Urtero bezala, abenduaren 31 gau eta gozaldean Kultur Etxea zabaldu zen "Kotilloaren" dantza agitieta animatu arirenentzat.



Gabonetako Haur Parkean denetarik egin zuten haur eta gazteokok.



Oleztzero ere pasa zen Haur Parkeak.



Baruek aurpegak margotu zutenen. Besteek orri zuririk.



Landaberriko ikastokakoak 24an goztaan ibiliz ziren kalez kale lanari.



Erakundeetako lehiaketako irabazteak irifintzu.



Ez dago New Yorkera joan beharrik gospel musikaz gozatzeko.



Ahokela abesbatzako kideak ere 24an, baina armatsaldean atena ziren kaleak gabon lentaz girozera.



Buruntzapek garestoentzat pilota partiduetak antolatua ditu.



Giro blicina izan zen politikordigan ur jolasetan.

Kiroletako agenda

FUTBOLA

Larunbata 10

10:30ean, Ostadar-Lagun Onak (Infantil Txiki Kopa) Michelin.
12:00etan, Ostadar-Lengokoak (Infantilen Ohorezko maila, kopa) Michelin.
15:30ean, Texas Lasartearra-Amaroz (I. Jubenila, kopa) Michelin.
17:15ean, Ostadar-Gure Txokoa (II. Erregionala, igoera fasea) Michelin.

11:00etan, Zumaiko-Ostadar (Kadeteen Ohorezko maila, kopa) Aita Mari, Zumaian
15:30ean, Beti Ona-Ostadar (I. Jubenila, igoera fasea) Beraun, Erreterian.
17:30ean, Eibartarrak B-Texas Lasartearra (II. Erregionala, kopa) Unbe Inf, Eibarren.

Igandea 11

10:30ean, Ostadar-Tolosa (Alebinak) Michelin.

12:15ean, Intxaurdi-Ostadar (Emakumezkoen Liga, kopa) Cesar Benito, Donostian.



FUTBOL 8

Larunbata 10

09:00etan, Intxaurrondo-Lasarte BHI (Infantila, eskolarra) Matigoxotegin.

FUTBOL 7

Larunbata 10

19:30ean, Xpression!!!-Niasa-Corpa (III. Maila) Zubipe, Hernanin.



ARETO-FUTBOLA

Larunbata 10

17:30ean, Zurt-ISU Leihoak (Gipuzkoako Liga, I. Maila) Zubiaurre, Azkoitian.
18:00etan, Lakunza Garraioak-Aldaz H.K. (Euskal Liga) Olaederra kiroldegia, Billabonan.

HERRIKO TXAPELKETA

Michelin edo frontoian
10:00etan, ISU Leihoak-Jordi
10:50ean, Siglo XX-Ilargi

Michelin edo moduloan
11:40ean, IOB H.K.-Ainhoa
12:30ean, Buenetxea-Epel

Michelin edo frontoian
13:20ean, Okela-Morrison
14:10ean, Tragoxka-Izkiñi
15:00etan, Mayi-Lurra XXI
15:50ean, Izarra-Oria krist.

Igandea 11

HERRIKO TXAPELKETA

Michelin edo frontoian
10:00etan, Katanga-Biyona
10:50ean, Viña del Mar-Danera
11:40ean, Oria Txiki-Obelisk



JUDO

Igandea 11

11:00etan, LOKEko Beñat Elizaldek Espainiako Txapelketa Absoluturako Iparraldeko sailkapena jokatu du, Galtzarabordako kiroldegian, Erreterian.
16:00etan, LOKEko kadeteak Gipuzkoako Txapelketa lehiatu du Galtzarabordako kiroldegian, Erreterian.



ATLETISMOA

Larunbata 10

Egun osoa, LOKEko atletak kadete, jubenil eta junior mailako pista estaliko Euskadiko txapelketa lehiatuko dira Anoetako Belodromoan.



LOKEko judokak etenik gabe, sariak eta sailkapenak lortzen



LOKEko judokak eta Gorka Aristegi entrenatzailea denboraldi hasieran atera genien argazkian.

Judoko gazteok ez dute atsedetik hartu. Gabonak hasi baino lehen Iruñean egon ziren nazioarteko lehiaketa batean eta urtariraren hasieran Open kadeteen lehiatu dira. Honetaz gain, abenduaren 22an, kirolari promesa saria eskuratu dute LOKEko 5 judoek. Honen berri, hurrengo TXINTXARRIn emango du.

LOKEko kadete eta infantilak, abenduaren 20an, Iruñako nazioarteko txapelketa lehiatu ziren eta emaitza onak eskuratu zituzten.

Nesken mailan, Kiara Tobajas eta Leire Zubizarreta izan ziren lehiatu ziren lasarteoirarrak eta biek garaipen kopuru bera izan zuten, bi borroka eta bakarra galdu zuten. Eta beraz, biek eskuratu zuten bigarren postua bakoitzak bere pisuan.

Mutletan, berriz, LOKEko sei gaztetxok parte hartu zuten. Asier Sagastik lau garaipenekin urrezko domina eskuratu zuen eta entrenatzailearen ustez, ikusgarria izan zen erakutsitako maila.

Abayuba Gutierrez ere oso ondo lehiatu zen. 3 borroka irabazi eta finala galdu ostean, bigarren postuarekin konformatu behar.

Josu Olmosek brontzea eskuratzeko aukerak zituen baina borroka erabakiorra galdu eta 5. postua eskuratu zuen azkenean. Mario Garridok ere postu bera eskuratu zuen, bi borroka irabazi eta bi galdu ostean.

Yerai Garcia eta Imanol Gonzalezek ere parte hartu zuten baina ez zuten zortirik izan.

Gorka Aristegik esan digunaren arabera, "oso pozik egoteko moduko lehiaketa egin zuten. Gure infantilak entrenamenduaren emaitzak ikusten ari dira eta beste batzuk gauzak lanarekin ateratzen direla konturatzen dira."

Open kadetea

Gainera, ez dute atsedetik izan, Gabonetan ere entrenatzen jarraitu baitute, urtariraren 3an, Tolosan ospatu zen Euskadiko Open kadetea prestatzeko.

Lehiaketan Aristegik entrenatutako lau judoka egon ziren emaitza desberdinak eskuratuz.

Leire Zubizarretak, bere konbateak irabazi ostean, 1go sailkatu zen, eta honek *Villa de Madrid* txapelketa, parte hartzeko txartela ematen dio, baita otsailaren 8 eta 9an Espainiako Open kadeteen ere.

Esteban Martinezen bigarren postuak, Espainiako Ope- nren parte hartzeko aukera ematen dio.

Amalia Curielek eta Mario Garridok, berriz, txapelketa ona egin zuten baina ez zuten sailkapena eskuratu. Gorkak esan digunaren arabera, "Mariorena lastima izan zen, gehiago merezi zuen eta".

Asteburuko lehiaketak

Eta igande honetan, gainera, bi lehiaketa garrantzitsu dituzte LOKEko judoek.

Beñat Elizaldek Ipar eskualdeko lehiaketan Espainiako Txapelketa Absoluturako sailkapena eskuratzen saiatuko da eta kadeteak Gipuzkoako txapelketa lehiatuko dira. Zortea gutzietei. •

Kiroletako oharrak

LOKEko afariak

LOKEko loteria-billeteen zenbaki irabazleak ondorengoak izan dira: 2365 zenbakiak Aginaga Sagardotegian lau afari irabazi ditu eta 8400 zenbakiak, berriz, Txintxardin Beltxa jaxtean lau lagunentzako afariak.

Irabazleek 656715700 (Mora- les) zenbakira deitu beharko dute dagozkien akreditazioak jasotzeko.

Udalaren kobratzea

Udalak barkamena eskatu nahi die abenduaren 3In egin zen kobratze baten ondorioz kalte- tuak izan diren udal kiroldegiko erabiltzaileei. Akatsa lehen bai lehen zuzenduko da kaltetuei kobratutako dirua bueltatuz.

Ostadarreko irabazleak

Urtero bezala, Ostadar Kirol Fundazioak bazkideen artean

otar bat zozketatu du eta aurtengo irabazlea Maddi Iparragirre izan da.

Bestetik, Ostadarrek nekazal etxe batean bi pertsonentzako asteburu pasa zozketatu du eta zenbaki irabazlea "el niño" lote- riako azken lau zenbakiekin bat etorri dena izan da: 8920. Beraz, irabazleak Ostadarreko bulegotik pasa edo 943360433 telefonora deitu beharko du.

Egunero

Erakusketa

ILITZ OLANO MARTIN herritarra-
ren "Gorputzeko umoreak"
margoen erakusketa. Jalgi
kafe-antzokian, egun osoan.



Ostirala, 9

Kontzertua

UNDERNEED taldearen kontzer-
tua Udaleko Gazteria Sailak
eta Xpressionk zirkuituak
antolatuta. Kulturetxeko kafe-
tegian, 20:00etan.

Igandea, 11

Zinea

UNA AMISTAD INOLVIDABLE hau-
rrentzako filma. Sarrera: 3,15
euro. Manuel Lekuona kultu-
retxean, 17:00etan, GAZTELANIAZ

Asteazkena, 14

Hitzaldia

GIZA HARREMANEI BEGIRADA POSI-
TIBOA izeneko hitzaldia KIU-
Bek antolatuta Psikologia eta
Osasuna zikloaren barruan.
Manuel Lekuona kulturet-
xean, 18:30ean, GAZTELANIAZ

Ostirala, 16

Jam sesioa

IBAN NIKOLAI izango da gonbi-
datu berezia. Ibanek didgeri-



Morau ta Agotak Jalgin

MORAU TA AGOTAK taldeak kontzertua eskainiko du Jalgi
kafe-antzokian. Talde honek Rock& Roll, power pop estiloa
jorratzen du. "Morau" (Andoni Tolosa) bakarlari gisa hasi
zen kantari. Poesia liburu bat argitaratu zuen, komikigini-
tzan ere aritu zen. Bi diska grabatu zituen eta hainbat musi-
kari eta kolaboratzaileekin grabatu ostean, 2003an Agotak
taldearekin hasi zen lanean.

GAUR OSTIRALA 22:30EAN
JALGI KAFE-ANTZOKIAN

doo musika tresnan aditua da.
Musika etnikoa eta tribala.
Jalgin, 22:30ean.

Igandea, 18

Zinea

PEREZ 2: GURE SAGUTXO HORI
haurrentzako filma. Sarrera 3,
15 euro. Manuel Lekuona kul-
retxean, 22:30etan, GAZTELANIAZ

turetxean, 17:00etan. EUSKARAZ

Osteguna, 22

Zinea

LA ESCAFANDRA Y LA MARIPOSA
filma Okendo Zinema Taldea-
ren eskutik. Sarrera: 3,15
euro. Manuel Lekuona kultu-
retxean, 22:30etan, GAZTELANIAZ

Oharrak

Nazimenduko lagunak eskerrak

Nazimentuaren lagunak tal-
deak eskerrak eman nahi diz-
kie abenduaren 24ean
egindako eskean dirua eman
zuten guztiei. Mila esker!
Dirua Yankee II Nikaraguako
herrixkara bideratuko da Ale-
jandro Romoren bitartez.

Bai Euskal Herriaren zozketa

Bai Euskal Herriak antolatuta-
ko zozketaren zenbaki irabaz-
lea 11.352 da eta Arrasaten
saldua izan zen.

Erketzeko inauterietako konpartsa

Orain 2 urte ekialdetik etorri-
tako arabiarrekin eta beraien
dantzekin txundituta geratu
bazinen eta iaz, Rafaella
Carrarekin gorputzeko hezur
guztiak astindu bazenituen...
ez pentsatu gehiago eta ani-
matu zaitez gure karrozan
parte hartzera, ondo pasako

duzu eta nahi adina dantzatu.
Izena emateko Erketzeko
lokalera joan Zumaburu ikas-
tolan. Entsaioak asteartetan
izango dira 21:00etatik
22:00etara urtarrileko 13, 20,
27an eta otsaileko 3, 10 eta
17an.

Gazte Bilguneko saskiaren zenbakia

Gabonetako saskiaren zozke-
ta egin zuen Gazte Bilguneak
urtarrilaren 5ean eta zenbaki
sariduna honakoa da: 287.
Zenbakia agertuko ez balitz
hurrengo 408 zenbakiak era-
mango luke saria. Saskia jaso-
tzeko Ttakun Kultur Elkartetik
pasa behar da urtarrilaren 14a
baino lehen (Geltoki kalea 4,
943 371448).

Oharrak jartzeko:

Tel.: 943 366858
txintxarri@ttakun.com
txintxarri@txintxarri.info
www.txintxarri.info

Dagokionari

Hauxe duzu zure
iritzia eta nahi
duzuna adierazteko
atal aproposa. Bidali
edo zuzenean ekarri
TXINTXARRI
aldizkarira.
Horretarako aukera
desberdinak dituzu;
telefonoz, 943-
366858 zenbakira
deituta, posta
elektronikoz
txintxarri@ttakun.com
helbidera bidaliaz.
Gure bulegora
ekarriaz
(Geltoki kalea 4).

Eskutitzak

Esakerrak eta gogoeta

Nire izena Lourdes Carrasco
da, 14 urte dituen Beñat
Bobilloren ama naiz. Pasa
den abenduaren 13an, Beñat
futbol partida bat jokatu
zuen Eibarren aurka. Atezai-
narekin talka egin eta buru-
hezurreko traumatismo bat
izan zuen; konortea galdu
zuen hiru minutuz, gutxi
gorabehera. Mendaroko
ospitalean ingresatu zuten
eta gero Donostiako Erresi-
dentzira ekarri zuten. Ezke-
rreko belarriko hezur bat
hautsi zaio eta oraingoz
belarri horretako entzumena
galdu du, hala ere esan digu-
te agian berreskuratu deza-
keela. Abenduaren 17an
berriz, oraindik ingratuta
zegoela, aurpegiko paralisi
bat izan zuen; honetaz ere
errekuperatuko dela esan
digute. Bere aitak eta nik
gure semea erresidentzian
egun eta gau zaindu ahal
izateko eta etxean daintun
beste bi semeak ere zaitze-
ko lana utzi dugu, noski.

Momentu delikatu haue-
tan beraien maitasuna eta
babesa adierazi diguten
guztiei eskerrak eman nahi
dizkiegu, senitartekoei, lagunei,
futboleko beste kideen gura-
soei, Ostadarreko nire
semearen entrenatzaileei,
Eibar taldekoei, ikastolako
gurasoei, lankideei, nire
semearekin talka egin zuen
haurraren amari, honek ere
hortza hautsi zuen, ikastola-
ko irakasleei...eta abar luze
bat.

Eta gogoeta egiteko eska-
tu nahi diet futbolaren ingu-
ruan pentsatzen eta
antolatzen jarduten direnei,
dena ahal den hobekien egin
dadin. Badakit hauek ez
dutela nahi haurrek istripurik
izan ditzaten, baina gerta ez
daitezten, behar diren neurri
guztiak ez dituztela hartzen
iruditzen zait.

Azaldu didatenaren ara-
bera ulertzen dut futbolean
talka egitearena baimendua
dagoela, are gehiago, sustatu
egiten dela. Haurrei esan
zaiena zera da, talka egitea,
ez izateko beldurrik ez zai-
ela ezer gertatuko, kolpe bat
bakarrik, baina ez zaie
babesten ordea.

14 urteko gaztetxoek
jokatzera, kirolaz gozatzera
eta ondo pasatzera joan
behar dutela ulertzen dut
nik, eta gainera irabazten
badute, hobeto. Ez dira pro-
fesionalak, ez eta helduak
ere, ez dago jokoan ez
beraien prestigioa, ezta sol-
data ere, baina bai beraien
osasuna.

Ez dakit haurren maila

hauetan mota honetako zen-
bat istripu izaten diren, fede-
razioko kideren batek edo
beste norbaitek datu hau
izango balu, helaraztea
eskertuko nioke. Nire semea-
ri gertatu zaio, beste haurrei
ez gertatzea gustatuko litzai-
dake, har ditzagun neurriak
haurren istripuen datuak
ahalik eta txikiena izateko.
Nire semearen istripuaz,
erresidentziko egonaldiaz,
gertatu zaionaz eta agian
geratuko zaizkion sekuelen
inguruan instituzioetako
"inor" ez da jabetu. Nirea
semea bezala, agian badau-
de haur gehiago istripuak
izan dituztenak eta inor jabe-
tu ez dena.

Nire proposamena hau
da, gure semeen partidetak
emaitzekin orriak ateratzen
direnean, hiru zutabe gehi-
tzea laukiari, zeinetan istri-
puren bat izan bada, larria
edo arina izan den eta nola
saihestu zitekeen ipiniko
zuen.

Deialdi bat egin nahi diet
futbol federazioan dauden
horiei, arautegia egiten
dutenei edo modu batean
edo besteak talka egin behar
hori sustatzen dutenei, era-
bilpena arautu dezaten eta
eskuragarri ipini ditzaten
neurri guztiak lesio hauek
ekiditeko, adibidez barrubi-
gunen bat edo babesgarri
bat buruan jartzeko. Eta adi-
bide bezala jarri nahi dut
Chelsea taldeko jokalaria,
Cech, aspaldidanik kasko
bat erabiltzen duela, arrisku
honetaz jabetuta dagoen
pertsona baita, berak ere
izan baitzuen buru-hezurre-
ko traumatismoa.

Berriro ere eskerrak eman
gure semearen osasunaz
arduratu diren guztiei eta
batez ere nire seme Beñati,
abenduaren 13an inoiz jaso
dudan urtebetetzeko oparirik
onena egin baitzidan, zorio-
nez, konpondu ezin den ezer
ez zitzaion gertatu eta. Eske-
rrik asko Beñat!

**Lourdes Carrasco
Lasarte-Oria**



Haurrek gustura eman zioten Olentzerori gutuna, honek jakin zezan zehatz-mehatz zein opari ekarri behar zuen.

Olentzero eta erregeek ez zuten hutsik egin

Urtero bezala zintzo zintzo etorri ziren bata eta besteak lasarte-oriarrek zuten hitzordura

TXINTXARRI

Olentzero eta hiru erregeek ez zuten hutsik egin lasarte-oriarrek eta urtero bezala herritarren itxaropen eta nahiak bete zituzten.

Aurrena iritsi zena Olentzero izan zen noski. Hilaren 24an Okendo plaza ingurura jaitsi zen menditik zakua opariz beteta zekarrela. Pipa hortzetan zuela, haur eta gaztetxoek eskutitzak jaso

zituena. Esti, Lur eta Markoren laguntza oparoa izan zuen lan horretan.

Eta urtarrilaren 5ean ekialdetik Olentzero bezain zintzo iritsi ziren hiru erregeek euren opariek. Herriko kaleetan

hainbat lasarte-oriar zeuden euren zain. Euripean baina umore onez heldu ziren azkenik bidai luzearen ondoren Okendora. Goizean euren laguntzaileek jaso zituzten haurren eskutitzak. •

Olentzerori Esti, Lur eta Markok lagundu zioten Okendon. Erregeei euren morroiek lagundu zien.



Erregeek ere laguntza izan zuten, beraien pajeak goizean jaso zituzten gutunak Okendon.



Olentzerok Lur, Marko, Ezi eta Xixukoren laguntza izan zuen.

